

## **JANTOKI ERAIKINAREN ARAUAK**

18 urte gorako bazkideak, bazkide ez diren pertsonekin sar daitezke hurrengo arauak jarraituz:

- Bazkide ez den gonbidatu bakoitzak 3 € ordaindu beharko du; 2€ urtebetetze ospakizuna baldin bada.
- Atezaintzan emango dioten orria bete beharko du bazkide ez diren pertsona guztien datuekin.
- Ekainaren 1etik irailaren 15era bazkide ez diren gonbidatuak igandetik ostegunera eta 21.00etatik aurrera sar daitezke.
- Ostiral eta larunbatetan debekatuta dago bazkide ez diren gonbidatuak jantoki eraikinean sartzea.

### **Urtebetetze-ospakizunak:**

- Jantoki eraikinean egingo dira derrigorrez. Tabernan debekatua dago.
  - Bulegoan izena eta bazkide zenbakia emango du 18 urte gorako arduradunak eta hurrekin egongo da denbora osoan.
  - Egutero 3 urtebetetze-ospakizun egingo dira gehienez.
  - Urteak betetzen duen pertsona bazkidea izango da derrigorrez.
  - Atezaintzan 2 € ordainduko da bazkide ez diren gonbidatu bakoitzeko sartu aurretik.
  - Uda garaian (ekainaren 1etik irailaren 15era) urtebetetzeak ospa daitezke astelehenetik ostegunera eta 19.00etatik aurrera.
- Jantoki eraikinaren taberna elkarte baimendutako esleipendunengatik bakarrik kudeatuko da eta ordutegia zuzendaritza batzordeak jarriko du.
- Janaria eta edariarekin elkartera sartzen bazara jantoki eraikina erabiltzea derrigorrezkoa da. Taberna-jatetxean edaria barran eskatuko da.
- Jantoki eraikinaren kanpoan egurrezko barbakoak (erretokiak) daude janaria prestatzeko. Barruan bakarrik mikro-uhinetan janaria berotu ahal izango da.
- Jantoki eraikina erabiltzen duen bazkideak arduratuko da mahiak eta aulkien garbiketaz. Arau hau ez betetzean jantokia erabiltzearen eskubidea galduko da 3 hilabetez eta urte batez berriro egiten bada.
- Mahaiak eta aulkia erabili ondoren, hasieran zeuden bezala utzi
- Baloi eta piloten erabilera debekatuta dago baita kalte egin dezaketen edozein jardura eta beste bazkideei molestatzea ere. Zerbait apurtzekotan, egin duen bazkideak konponduko du edo bere gurasoek 18 urte baino gutxiago baditu. Bazkide ez den gonbidatuak zerbait apurtzen badu bazkide arduradunak konponduko du.
- Bazkideek arauak bete beharko dituzte eta ikusten duten edozein gabezi edo urritasun ikustekotan, atezaintzan edo bulegoan honen berri eman beharko dute. Bazkideek instalazioak babesteko edo hobetzeko atezaintzan ematen diren iradokizun orriak bete ditzakete

- Zuzendaritza batzordeak arauak aldatu ditzake bazkideen beharretara egokitzeko eta instalakuntzen funtzionamendu, zaintza eta mantenimendua hobetzeko.

**Bazkideak ez diren pertsonen sarrera taberna-jatetxera:**

18 urte gorako bazkideak bazkide ez diren pertsonekin sar daitezke taberna-jatetxera hurrengo arauak jarraituz:

- Bazkide ez den gonbidatu bakoitzak 6 € ordainduko du atezaintzan txartel bat hartuz. Txartel hau erabiliko da bukaeran janariaren faktura kopurua 6 € murrizteko. Txartelak barran eskatutako edaria eta janaria ordaintzeko ez dira onartuko.
- Atezaintzan emango dioten orria bete beharko du bazkide ez diren pertsona guztien datuekin.
- Ekainaren 15etik irailaren 15era bitarte, bazkide ez diren gonbidatuak 21.00etatik aurrera sar daitezke.